# GOIKOAK ETA BEHEKOAK

Textua eta ilustrazioak: PALOMA VALDIVIA

Itzulpena: MANU LOPEZ GASENI

Cartoné koadernaketa. 22 x 22 cm. 36 or. 14 €.

IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

OSO GOMENDAGARRIA - Irakur Gida 2010 (Mondragon Unibertsitatea)




- **Gaia:** buruz gora eta buruz behera bizi diren bi mundo paraleloetako biztanleen arteko harremana.
- **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzeko modukoak:** albumaren diagramazio eta formatua, bi aldetatik irakur daitezkeen testuekin; gizarte-harremanak, espazioa, noranzkotasuna, geografia, kultura-aniztasuna, kontinenteen arteko desberdintasunak (klima, ohiturak...).
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/goikoak-eusk

**Goikoak eta behekoak** (euskara)
ISBN 978-84-7681-659-2. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

**Los de arriba y los de abajo** (gaztelania)
ISBN 978-84-96388-28-4. Obras de autor. Primeros lectores.

**Os de arriba e os de abaixo** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-691-4. Demademora.

**Els de dalt i els de baix** (katalana)
ISBN 978-84-8464-876-5. Obres d'autor. Primers lectors.

**Os de cima e os de baixo** (portugesa)
ISBN 978-989-8205-17-9. Obras de autor. Primeiros leitores.

**Quelli di sopra e quelli di sotto** (italiera)
ISBN 978-84-1343-106-6. Gli albi d'autore.

**The top and the bottom** (ingelesa)
ISBN 978-84-8464-750-8. Books for dreaming.

*Munduan bi biztanle mota daude.*

*Goikoak eta behekoak. Goikoak behekoak bezala bizi dira.*

*Eta behekoak goikoak bezala, baina alderantziz...*

Album honetako alderdirik azpimarragarriena haren proposamen estetiko eta narratiboaren originaltasun eta soiltasuna da. Mundua alderantziz delako ikuskeratik abiatzen da, errealitateak dimentsio paralelo batean dukeen halako islatik. Eta bizimodu erabat desberdinak eta antagonikoak daramatzatelako ideiatik abiatu beharrean, bizikide eta osagarriak diren mundu partekatuak direlako planteamendua da aurkezten zaiguna.

Desberdintasun bakarra da gertakizunak buruz gora eta beherako planoetan jazotzea, tolestuz gero bateratsuak izan daitezkeenak. Buruz gora edo buruz behera irakurtzeko albuma da, irakurlearen nahierara; bi aldetatik irakurtzeko ezin aproposagoa. Ilustrazioek, berriz, biztanleria bitxia erakusten dute: oinarrizko moldeetan irudikatutako pertsonaiak, eszena simetrikoak, kolore leun eta epelak.

## Paloma Valdivia

(Chile, 1978)

Diseinua ikasi zuen Txileko Unibertsitate Pontifizioan eta gero Ilustrazioko graduondo ikastaro bat egin zuen Bartzelonako EINA Eskolan. Ilustratzaile gisa lan egiten du zenbait argitaletxe, museo eta hedabide grafikorentzat, hala Txilen, nola Txinan eta Espainian. Miguel Gallardo artistaren ilustrazio-laguntzailea ere bada. Haurrentzako 15 bat album argitaratu ditu. Beste lan-ildo batean, haurrentzako telesaioetarako gidoigile eta ilustratzailea da. Jaso dituen sarien artean Eslovakiako Ilustrazio Bienaleko BIB PLAQUE Nazioarteko Saria aipatu behar da. Bere jaioterriko bi unibertsitatetan irakasten du ilustraziogintza. Gaur egun Bartzelonan bizi da.

http://palomavaldivia.cl

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com




